



# Behatoki izkutua

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- MATEMATIKA.

## HELBURUAK

- Prezipitazioa eta temperatura ezagutzea klimaren osagai gisa.
- Klima eta paisaia naturalaren arteko harremanaz gogoeta egitea.

**NON DAGOEN EZ DAKIGUN** meteorologia-estazio batean, ondoko datuok jaso dituzte aurten egindako euria kopuruaz eta batez besteko temperaturaz:

### Temperatura Celsius graduetan (°C)


urtarrila	otsaila	martxoa	apirila	maiatza	ekaina	uztaila	abuztua	iraila	urria	azaroa	abendua
10°C	8°C	6°C	4°C	3°C	2°C	1°C	1°C	2°C	4°C	6°C	7°C

### Prezipitazioak litrotan


urtarrila	otsaila	martxoa	apirila	maiatza	ekaina	uztaila	abuztua	iraila	urria	azaroa	abendua
70 l	90 l	80 l	80 l	70 l	50 l	30 l	20 l	30 l	30 l	40 l	50 l

Litroak guztira: 630

Datuok erabiliz, klimograma deritzan grafikoa osatu dute. Horrelako grafiko bat egitea proposatzen dugu, ondoko eredu erabilia:



Konpara itzazu Euskal Herrian kostaldetik hurbil dagoen estazio batean bildutako datuak bigarren grafiko honetan bildutakoekin, eta ondoko galderak erantzun:




■ Temperaturen arabera. Klima hotza edo epela da? Noiz egiten du bero handiagoa leku batean eta bestean? Zeintzuk dira hilerik hotzenak kasu bakoitzean?

■ Euri kopuruak kontuan hartuta: Euskal Herriko kostaldean duguna baino klima lehorragoa edo umelagoa da?

■ Zeintzuk dira hilerik euritsuena? Eta zeintzuk lehorrena?

Orain konpara itzazu bi argazki hauek eta esan zein paisaia ikusiko duen gure meteorologo ezezagunak estazioko leihotik. Zergatik?

Azkenik, koka ezazu estazioa mapan. Bi aukera ematen dizkizugu: Islandia eta Malvinak (Falkland uharteak) Zure stez, zein da erantzun zuzena? Zergatik?



**Klimograma egiteko azalpenak**

<http://www.jimena.com/recursos/trimes-1/segundo/geo/climog.htm>

**Euskadiko klimari buruzko informazioa**

<http://vppx134.vp.ehu.es/met/html/meteo.htm>